



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 17koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka-eskaeren ebazpen-proposamena ematen du.

Hezkuntza sailburuak, 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bitartez (2017ko ekainaren 30eko EHAA), 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetzak beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2017ko ekainaren 28ko Aginduak 13.artikuluaren xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2017ko irailaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak; eta III. eranskinean zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 17a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN